

## BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

### 2611

*AGINDUA, 2012ko maiatzaren 9koa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, azaroaren 23ko 230/2004 Dekretuan aurreikusitako 2012ko ekitaldiko laguntzetarako eskabideen aurkezpen-hasiera argitara ematekoa. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreetan Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza Teknologikoa sustatu zen (Ikerketa programa).*

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreetan Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza Teknologikoa sustatzekoa (Ikerketa programa - 2004ko azaroaren 26ko 227. zenbakiko EHAA) azaroaren 23ko 230/2004 Dekretuak, bere 1. artikulua dioen arabera, helburu hau dauka: «gerora itzuli beharreko aurrerakinen bidez nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreetan laguntzak ezartzea, ikerketa, garapen eta berrikuntzarako jarduerak sustatu eta pizteko».

Dekretu horren 8.1 artikulua honela dio: «Urtero eta Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren Agindu bidez irekiko da eskaerak aurkezteko epea. Nolanahi ere, laguntza-eskabidea dagokion ekitaldian aurkeztutako proiektuak epe barrukotzat joko dira».

Dekretuaren 8. artikuluko bigarren paragrafoak, berriz, ezartzen du besteak beste honako hauek adierazi beharko direla deialdia egiteko aginduan: eskabideak aurkezteko apearek hasiera, gerora itzuli beharreko aurrerakinetan guztira erabiliko den gehieneko dotazioa, eta jarduerak burutzeko epea.

Deialdi hau egiteko, kontuan hartu dira Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuak diru-laguntzak emateko ezarritako arauak eta honako beste dekretu eta lege hauek xedatutakoa: Euskal Autonomia Erkidegoko 2011ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra Onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legea, eta 689/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura 2012an ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena.

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Eskabideak aurkezteko epea.

1.– Agindu honek ondorioak dakartzan egunean bertan hasiko da azaroaren 23ko 230/2004 Dekretuan ezarritako 2012ko ekitaldiko laguntzak eskuratzeko eskabideak aurkezteko epea. Dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreetan Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza Teknologikoa sustatu zen (Ikerketa programa).

2.– Azaroaren 23ko 230/2004 Dekretuaren 8. artikuluko 1. paragrafoarekin bat etorritik, lehenago aurkeztutako laguntza-eskabideei dagozkien proiektuak epe barrukotzat joko dira 2012ko ekitaldian.

Bigarrena.– Eskabideak eta aurkeztu beharreko agiriak.

1.– Gerora itzuli beharreko aurrerakinetarako laguntza-eskabideak Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariari zuzenduta aurkeztu behar dira Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren bulegoetan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz), zuzenean bertara joanez edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 38.4 artikuluan aurreikusitako bideak erabiliz, eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamendua arautzen duen apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan zehaztutakoarekin bat etorritz.

2.– Sektore horietarako proiektuak (denak sektore pribatuarenak) egiten dituzten pertsona fisikoek edo juridikoek edo nekazaritza, arrantza eta elikadura sektoreetako enpresen taldea, baita teknologiaren edo zerbitzuen arloetako enpresek ere (pertsona fisikoak edo juridikoak badira ere), azaroaren 23ko 230/2004 Dekretuan azaltzen diren inprimaki normalizatueta aurkeztu beharko dituzte eskabideak, 9. artikuluan eskatzen diren agiriekin batera.

Halaber, zinpeko aitorpena ere bidali beharko dute egiaztatzeko dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen zehapen administratiborik edo penalik ez dauzkatela, ezta horretarako legezko inolako debekurik ere ez, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne, otsailaren 11ko 1/997 Legegintzako Dekretuaren 50. artikulua aldatzen duen Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean zehaztutakoarekin bat etorritz.

3.– Eskabide-inprimakia eskuragarri egongo da [www-ingurumena.ejgv.euskadi.net](http://www-ingurumena.ejgv.euskadi.net). web orrian.

Hirugarrena.– Ekonomia-baliabideak.

1.– Agindu honen helburua betetzeko erabiliko den aurrekontu-kreditua sei milioi (6.000.000) eurokoa izango da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorretan horretarako ezarri den aurrekontu-kredituaren kontura joango da. Zenbateko horretatik zazpiehun mila (700.000) euro 2012ko ordainketa-krediturako izango dira, eta gainerakoa 2019. urtera arteko konpromiso-kredituetarako.

2.– Eman behar diren gerora itzuli beharreko aurrerakinen bolumen osoak ezingo du gainditu aurreko paragrafoan izendatutako zenbatekoa ez eta –indarrean dagoen legeriak kreditu-loturari edo aurrekontu-aldaketari buruz aurreikusi duenaren arabera– aurrekontuetan ezarritako kopuru hori eguneratzetik ateratzen dena ere. Horregatik, zenbateko hori amaitu ondoren, ezin izango da gerora itzuli beharreko aurrerakin berririk esleitu, eta une horretatik bertatik aurrera galduko du indarra agindu honek. Halakorik gertatuz gero, Berrikuntza eta Elikagaien Industriako zuzendariaren ebazpen batek emango du horren berri.

Laugarrena.– Jarduerak burutzeko epea.

Azaroaren 23ko 230/2004 Dekretuaren 10. artikulua xedatutakoaren arabera, ikerketa, garapen eta berrikuntzarako proiektuak egiteko gehienez ere bi urteko epea izango da, gerora itzuli beharreko aurrerakina esleitzeko ebazpena jakinarazten den egunetik hasita.

Bosgarrena.– Errekurtsoak.

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio bideari eta honen aurka berraztertzeo hautazko errekurtsua jarri ahalko dute interesdunek Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren aurrean. Horretarako, hilabeteko epea egongo da honakoa Euskal

2012ko ekainaren 8a, ostirala

Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzetik dago Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren aurrean, bi hilabeteko epean honakoa aldizkari berean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Seigarrena.– Erakunde laguntzailea.

Luzaro, Establecimiento Financiero de Crédito, S.A. izango da azaroaren 23ko 230/2004 Dekretuan ezarritako dirulaguntzen finantza-kudeaketaz arduratuko den erakunde laguntzailea.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean sartzea.

Agindu hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko maiatzaren 9a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,  
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.